Dekretoaren euskarazko izenpuruan, zera dioenean: "... emakumeen akurapena suztatzeko neurrika antolatuz", zera jarri behar du: "... emakumeen lan-akurapena suztatzeko neurriak atalka emanez".

2. Ataleko 2. idaz-zatiko 4. lerroan, erderazko zeraren jarraian: "expedido por un centro oficial o reconocido", zera erantsi behar da: "figuren inscritos como demandantes de primer empleo en la correspondiente Oficina de Empleo y...".

15. Ataleko azken lerroaldian, zera dioenean: "4. Atalaren 2. zatian esandakoetan heuretan eta bertan egindako salbuespenekin heurekin.", zera jarri behar da: "3. Ataleko 2. idaz-zatian esandakoetan heuretan eta bertan egindako salbuespenekin heurekin.".

En el enunciado del Decreto, donde dice: "...emakumeen akurapena suztatzeko neurrika antolatuz", debe decir: "...emakumeen lan-akurapena suztatzeko neurriak atalka emanez".

En el artículo 2.º, párrafo 2.º, línea 4, a continuación de: "expedido por un centro oficial o reconocido", se debe añadir: "figuren inscritos como demandantes de primer empleo en la correspondiente Oficina de Empleo y ...".

En el artículo 15, última línea, donde dice: "y con las mismas salvedades previstas en el párrafo 3.º del artículo 4.º.", debe decir: "y con las mismas salvedades previstas en el párrafo 2.º del artículo 3.º.".

## LEHENDAKARITZA ETA EKONOMIA ETA HERRIOGASUN-SAILAK

**625**

Martxoaren 20ko 77/1984 DEKRETOA, "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundeari "Gasteiz Irratia, A. B." Akziokako Herri-Baltzua eratzeko baimena emanez.

Azaroaren 30eko 148/1981 Dekretoz, Eusko Jaurlaritzak "Gasteiz Irratia, A. B." izeneko Akziokako Herri-Baltzua eratzeko baimena eman zuen, lege horretan Baltzuaren Araudia Eusko Jaurlaritzak geroago onartua izango zela ohartemanez.

"Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundea sortzeari buruzko Legebiltzarraren Maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen Lehenengo Erabaki Gehigarrian ohartemandakoaren arauera "Gasteiz Irratia"-ri datxekon ondarea Erakundearen barruan sartuta geldituko da.

Horregatik, "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundearen pentzutango "Gasteiz Irratia, A. B." Herri-Baltzuaren eraketarako behin-betiko baimena ematea bidezko da, horren ondorioz Azaroaren 30eko 148/1981 Dekretoa baliogabeturik gelditzen dela.

Hori horrela, Lehendakaritzaren Idazkaritza, eta Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuen saloz Eusko Jaurlaritzak 1984.eko Martxoaren 20an egindako Osoko Bilkuran aztertu eta onartu ondoren eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakari baiteangoa naizenez nire onarpena emanik, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo Atala*

1. "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundeari "Gasteiz Irratia, A. B." izeneko akziokako Herri-Baltzua eratzeko baimena ematen zaio, horren domua Herri-Erakunde horrek izenpetu eta erabat ordainduko duelarik.

2. "Gasteiz Irratia, A. B." Euskadiko Autonomia--Elkarteko Herri-Baltzutzat joko da, Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauekiko Ekainaren 22ko 12/1983 Legearen III Idazpuruko Laugarren Idaz-Zatian aipatutako Baltzuak eraentzeko manuak beretzat erabilgarri izango direla, hots, "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundea sortzeari buruzko Maiatzaren 20ko 5/1982 Legea, Akziokako Baltzuen

## DEPARTAMENTOS DE PRESIDENCIA Y DE ECONOMIA Y HACIENDA

**625**

DECRETO 77/1984, de 20 de Marzo, sobre autorización al Ente Público Radiotelevisión Vasca, para la constitución de la Sociedad Anónima Pública "Gasteiz Irratia - Radio Vitoria", S. A.

Por Decreto 148/1981, de 30 de Noviembre, el Gobierno Vasco autorizó la constitución de una Sociedad Anónima Pública con la denominación de "Radio Vitoria", S. A., previniéndose en el mismo texto legal que los estatutos de la Sociedad serían aprobados por el Gobierno en ocasión ulterior.

La creación del Ente Público Radiotelevisión Vasca, mediante Ley 5/1982, de 20 de Mayo, del Parlamento Vasco, originó que, según lo prevenido en su Disposición Adicional Primera, el patrimonio afecto al establecimiento "Radio Vitoria" quedará integrado en el Ente.

Procede por ello la definitiva autorización para la constitución de la Sociedad Pública "Gasteiz Irratia-Radio Vitoria", S. A., a cargo del Ente Público Radiotelevisión Vasca, con la consiguiente derogación del Decreto 148/1981, de 30 de Noviembre.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de los Departamentos de Secretaría de la Presidencia y de Economía y Hacienda, previa deliberación y aprobación del Pleno del Gobierno Vasco, en su reunión del día 20 de Marzo de 1984, y con mi aprobación, como Lehendakari en funciones del Gobierno,

DISPONGO:

*Artículo primero*

1. Se autoriza la constitución por el Ente Público Radiotelevisión Vasca de una Sociedad Pública, en forma anónima, con la denominación "Gasteiz Irratia - Radio Vitoria", S. A., cuyo capital será suscrito y desembolsado íntegramente por el mismo Ente Público.

2. "Gasteiz Irratia - Radio Vitoria", S. A., tendrá la consideración de Sociedad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siéndole de aplicación los preceptos por los que se rigen las Sociedades a que se refiere el Título III, Capítulo Cuarto de la Ley 12/1983, de 22 de Junio, sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco: la Ley 5/1982 de 20 de Mayo, sobre creación del Ente Público

Lege-Jaurpideari buruzko 1951.eko Uztailaren 17ko Legea eta gainontzeko manuak.

*Bigarren Atala*

Dekreto honen bidez baimentzen den Baltzuaren xedea honako hau izango da:

a) Entzungaiak ondu eta horiek artez nahiz zeharka, irrati-elektraindarreko uhinez edo elektra-hariz albistaritza, kultura, arte, merkataritza, laket edo iragarketa-xedez nornahirentzat edo herri-talde batentzat zabaltzea, eta bai hezkuntza--erapidetzari eta euskal-kulturaren suztapenari eta hedapenari eta berariz Euskara suzpertzeko eta indartzeko laguntza ematea ere.

b) "Gasteiz Irratia" E. A. J.-62 deritzan irratetxearen herri-zerbitzuzko eraentza, bere antolapidetza, jabego eta zerbitzu eta guzti, eta bai geroan dagozkion arduralaritza-bideak egin ondoren beretzakotu dezakeen beste horrelako ezein zerbitzurena ere.

c) Aurrean esandakoekin bateango edo horiek osatzezko beste ezein ekintza.

*Hirugarren Atala*

1. Horren hasierako baltzu-domua, "Euskal Irrati--Telebista" Herri-Erakundeak guztiak hartuta eta erabat ordainduta egongo diren jabe-izeneko eta balio-idatzizko mila pesetako ehun akzioz osatutako ehun mila pesetakoa izango da.

2. Aipaturiko Erakundeak, akzioen idatzitako balioaren ordainketa, Akziokako Baltzuei buruzko legean baimendutako ezein modu, aldi eta zenbatekoz egingo du.

3. Akzioak ezin izango dira dirubidezko edo dohango ezein jabego-agiriaren bidez saldu, bahitu, gaudimen gisa utzi edo eman, hori Dekreto honen bosgarren Ataleko 2. idaz--zatian esaten denaren kaltetan gabe.

*Laugarren Atala*

"Gasteiz Irratia, A. B." Euskal Irrati-Telebista Herri--Erakundearen barruan sartuta gelditukoda, eta horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren Idazkaritza-Sailari arduralaritzabidez atxikita.

*Bosgarren Atala*

1. Dekreto honen bidez bere eraketa baimentzen deneko Baltzuan "Euskal Irrati-Telebista" Herri-Erakundeari dagozkion bazkide bakarraren eskubideetaz Herri-Erakundearen Artezkari Nagusia baliatuko da, eta horri, Baltzua eratzearekiko eskribau-agiriak egiteko, erabilgarri den legean ezarritako gutxienezkoari eutsiz hasierako baltzu-domuaren ordainkizuna zehazteko eta hala gertatuz gero, baltzu-domuaren ohartemandako zenbatekoa lortu arte bata bestearen ondorengo ordainkizunak noiz ehingo diren erabakitzeko, akzioen balioaren ordainkizuna nola gauzatuko den erabakitzeko, Baltzuaren arduralari bakarra izendatzeko, bere araudia onartzeko eta Baltzua osotasunean eratu eta dagozkion Herri--Erroldeetan errolderatu eta agiriak egiteratu eta emateko ahalmena ematen zaio.

2. Baltzu-seuseztapen, bat egide edo aldakuntza baimendu ahal izateko Eusko Jaurlaritzaren Dekretoa beharrezkoa izango da.

Radiotelevisión Vasca; la Ley de 17 de Julio de 1951 sobre Régimen Jurídico de las Sociedades Anónimas, y demás preceptos legales.

*Artículo segundo*

Constituirá el objeto social de la Sociedad que por este Decreto se autoriza:

a) La producción y difusión de sonidos mediante emisiones radio-eléctricas a través de ondas o mediante cables destinados, mediata o inmediatamente, al público en general, con fines informativos, culturales, artísticos, comerciales, recreativos, publicitarios, de cooperación con el sistema educativo, fomento y difusión de la cultura vasca, y en especial el fomento y desarrollo del euskera.

b) La gestión, como servicio público, de la emisora de radiodifusión denominada "Radio Vitoria" E.A.J.-62, con todas sus instalaciones, propiedades y concesiones, así como de cualquier otra concesión de emisora radiofónica que en el futuro pueda asumir, previos los correspondientes trámites administrativos.

c) Cuantas actividades sean anejas o complementarias de las anteriores.

*Artículo tercero*

1. El capital social inicial será de sesenta y siete millones de pesetas, dividido en seiscientas setenta acciones nominativas de cien mil pesetas de valor nominal cada una, que serán íntegramente suscritas por el Ente Público Radiotelevisión Vasca.

2. El desembolso del valor nominal de las acciones se hará por el mencionado Ente en cualquiera de las formas, momentos y cuantías autorizadas en la legislación sobre Sociedades Anónimas.

3. Las acciones no podrán ser enajenadas, hipotecadas, gravadas, pignoradas o cedidas por ningún título, oneroso o gratuito, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 2 del artículo quinto de este Decreto.

*Artículo cuarto*

"Gasteiz Irratia - Radio Vitoria", S. A., quedará integrada en el Ente Público Radiotelevisión Vasca, y, a través de éste, adscrita administrativamente al Departamento de Secretaría de la Presidencia del Gobierno Vasco.

*Artículo quinto*

1. Los derechos de único socio que al Ente Público Radiotelevisión Vasca corresponden en la Sociedad cuya constitución se autoriza por este Decreto serán ejercitados por el Director General del Ente Público, quien igualmente queda facultado para formalizar la escritura de su constitución, determinar el desembolso inicial del capital, respetando siempre el mínimo establecido en la legislación aplicable, y decidir el momento, en su caso, de los sucesivos desembolsos, hasta alcanzar la cifra prevista de capital social, así como para resolver la forma en que se materializa el desembolso del valor de las acciones, designar administrador único de la Sociedad, aprobar sus estatutos y realizar y otorgar cuantos actos y documentos sean precisos hasta lograr la plena constitución de la Sociedad, y su inscripción en los Registros Públicos correspondientes.

2. Será necesario Decreto del Gobierno Vasco para autorizar la disolución, fusión o transformación de la Sociedad.

*Seigarren Atala*

"Gasteiz Irratia, A. B." norbanako-alorreko legepeko norbanakoekin erabilgarri diren agintepide eta egintemendeekiko agizko arauen menpe egongo da, bere erakuntza eta iharduna araupetzen duten legeen arauera Euskal Irrati-Telebista Herri-Erakundearena izateari, eta bere ondarea osatzen duten ogasun eta eskubideen berezitasunei eta erabilgarri izan dakizkion lanarigo-jaurpideei begira dagozkiekeen berarizkotasunen kaltetan gabe.

LEHENENGO AZKEN ERABAKIA

Dekreto hau indarrean jar dadinean, "Gasteiz Irratia, A. B."' Akziokako Herri-Baltzua eratzeko baimenarekiko Azaroaren 30eko 148/1981 Dekretoa baliogabeturik geldituko da.

BIGARREN AZKEN ERABAKIA

Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1984.eko Martxoak 20.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Lehendakaritzaren Idazkaritza-Sailburua,
JAVIER CAÑO MORENO.

Ekonomia eta Herriogasun-Sailburua,
PEDRO LUIS URIARTE SANTAMARINA.

*Artículo sexto*

"Gasteiz Irratia - Radio Vitoria", S. A., estará sometida a las normas comunes sobre competencia y jurisdicción aplicables a las personas de derecho privado, sin perjuicio de las especialidades que proceden, en función de su pertenencia al Ente Público Radiotelevisión Vasca, y de la naturaleza y regulación de los bienes y derechos que constituyen su patrimonio, y del régimen de personal que le sea aplicable, según la legislación que establece su constitución y funcionamiento.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

A la entrada en vigor de este Decreto quedará derogado el Decreto 148/1981, de 30 de Noviembre, del Gobierno Vasco, sobre autorización para la constitución de la Sociedad Anónima Pública "Radio Vitoria", S. A.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de Marzo de 1984.

El Presidente del Gobierno Vasco,
CARLOS GA[illegible]ETXEA URRIZA.

El Consejero de [illegible]a de la Presidencia,
JAVIER CANO MORENO.

El Consejero de Economía y Hacienda,
PEDRO LUIS URIARTE SANTAMARINA.

## OSASUNKETA ETA GIZARTESEGURANTZA ETA EKONOMIA ETA HERRIOGASUN-SAILAK

**626**

Martxoaren 20ko 78/1984 DEKRETOA, Osasunketa eta Gizartesegurantza-Sailburuaren eta Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz, Osakidetza izeneko Erakunde Burujabean, Akurapen-Mahai bat sortarazteari buruz.

Arduralaritzazko akurapenetarako Ihardutze-Jaurpideari buruzko Uztailaren 30eko 92/1981 Dekretoko Gehigarrizko Erabaki Bakarrak, baimena ematen dio Jaurlaritzari, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren eta horretan artez interesa izan dezan Sailburuaren saloz, Akurapen-Mahai berriak sor ditzan, beroietako kideak, beroien aginte-eremua eta epea Erabaki horretan zehaztuko direlarik Arduralaritzako Lansail batek bideratutako akurapen-kopuruak hala eska dezanean.

Osakidetza izeneko Erakunde Burujabea, herri-mailako osasun-zerbitzuen eraentzaren arduradun denez, Elkarte honetako osasun-alorreko zerbitzuen egitamuketa eta arta berari dagokionez eta, ondorioz, etor lekiokeen akurapen-kopurua ugaria izan daitekeenez, bidezko da baimen horretaz baliatzea.

Horiek horrela, Akurapen-Batzorde Nagusiaren aldezko erizpen-txostena ikusi ondoren, Osasunketa eta Gizartesegurantza-Sailburuaren eta Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz, Eusko Jaurlaritzak 1984.eko Martxoaren 20an egindako Osoko Bilkuran aztertu eta onartu ondoren, eta Jaurlaritzako Lehendakari naizenez, nire onarpenaz, honako hau

## DEPARTAMENTOS DE SANIDAD Y SEGURIDAD SOCIAL Y DE ECONOMIA Y HACIENDA

**626**

DECRETO 78/1984, de 20 de Marzo, a propuesta de los Consejeros de los Departamentos de Sanidad y Seguridad Social y de Economía y Hacienda, sobre creación de una mesa de contratación en el Organismo Autónomo de Osakidetza.

La Disposición Adicional Unica del Decreto 92/1981, de 30 de Julio sobre régimen orgánico de la contratación administrativa, autoriza al Gobierno para crear, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y del Departamento directamente interesado, nuevas Mesas de Contratación, cuya composición y ámbito competencial y temporal serán fijados en la misma Disposición, cuando el volumen de contratos gestionados por un Organo de la Administración así lo exija.

Es oportuno hacer uso de esta autorización en relación con el Organismo Autónomo Osakidetza, dado el volumen esperado de contratación que le afecta, al ser el Ente encargado de la gestión de los servicios sanitarios de carácter público, y la programación y control de los servicios de índole sanitaria de nuestra Comunidad.

En su virtud, previo informe favorable de la Comisión Central de Contratación, a propuesta conjunta de los Consejeros de los Departamentos de Sanidad y Seguridad Social y de Economía y Hacienda, previa deliberación y aprobación del Pleno del Gobierno Vasco, en su reunión del día 20 de Marzo de 1984 y con mi aprobación como Lehendakari del Gobierno,